

**Bilbon, 2016ko abenduaren 23an**

**«AGEING RESEARCH» DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO GERONTOLOGIAKO TALDE  
IKERTZAILEAREN ETA BASAURIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMEN  
ESPEZIFIKOA, «HIRI ATSEGINAK» PROIEKTUA GARATZEKO: adinekoak parte-hartzearen  
bidez ahalduntzeko aukera**

Alde batean, Deustuko Unibertsitatearen ordezkari gisa, José María Guibert Ucín S.J. jauna, Unibertsitateko errektorea (Unibertsitatearen IFZ: R4868004E; Bilbon du egoitza).

Beste aldean, Basauriko Udalaren ordezkari gisa, bertako alkate den Andoni Busquet Elorrieta jauna (Udalaren IFZ: P4809500D).

Hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote alderdiek elkarri, eta zera

**ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENENGOA.-**

«Ageing Research» Deustuko Unibertsitateko gerontologiako talde ikertzaileak, adinekoen ahalduntze pertsonalari eta komunitate-ahalduntzeari buruzko ikerketa-proiektu/parte-hartze ekintza bat diseinatu duela. Aipatutako ekimena, gainera, Osasunaren Mundu Erakundearen «Adinekoentzako hiri atseginak – Age friendly cities» proiektuan oinarrituta dagoela.

Deustuko Unibertsitateak interesa agertu duela proiektu hori Basauri udalerrian garatzeko.

**BIGARRENA.-**

Basauriko Udalak zahartze aktiboko prozesuak sustatu nahi dituela udalerrian eta herritarren artean. Horren harira, konpromisoa hartu nahi duela «Adinekoentzako hiri atseginak – Age friendly cities» proiektuarekin, eta udalerrian berau ezarri.

Udalak nahi lukeela Deustuko Unibertsitateak babestea proiektu hori Basaurin gauzatu dadila.

#### **HIRUGARRENA.-**

Alderdi biek lankidetzan aritu nahi dutela, proiektu hau garatu eta kudeatzeko.

Hori guztia dela eta, Hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausula hauei jarraituta:

### **KLAUSULAK**

#### **LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.**

Lankidetzaz-hitzarmen honen xedea da Basauriko adinekoekin ikerketa-proiektua/parte-hartze ekintza garatzea, ahalduntze pertsonalaren eta komunitate-ahalduntzearen eremuan (parte-hartze komunitarioa), Osasunaren Mundu Erakundearen «Adinekoentzako hiri atseginak – Age friendly cities» ereduan oinarrituta.

#### **BIGARRENA.- TALDE IKERTZAILEA ETA PROIEKTUA NON EGINGO DEN.**

Deustuko Unibertsitateak «Ageing Research» talde ikertzailea jarriko du Basauriko Udalaren esku, udalerrian proiektua aurrera eramateko. Talde horretako irakasle ikertzaile bik hartuko dute parte proiektuan, gutxienez, bai eta graduondokoa ari direnek (bekadunek) ere —gutxienez, bekadun bat ariko da—.

#### **HIRUGARRENA.- ALDERDIEN KONPROMISOA (EDO PROIEKTUA GARATZEA).**

Parte-hartzaile bakoitzak konpromisoa hartzen du esleitutako eginkizunak aurrera eramateko, proiektua memoriaren arabera egokiro garatu dadin. Horren harira, alderdi bakoitzak bere gain hartzen ditu memorian jasotako eginkizunak eta erantzukizunak. Hona hemen:

Deustuko Unibertsitateko talde ikertzaileak:

- Proiektuaren dinamizazio globala egingo du, fase guztietan zehar. Proiektuaren pixkanakako garapena gidatuko du, eta Basauriko eragileak eta adinekoak apurka-apurka ahalduntzeko beharrezkoa den teknologia-transferentzia emanog du.
- Dinamizazio-prozesuak eskatzen du Deustuko Unibertsitateko taldeak hamabost egunean behin biltzea Basauriko Talde Eragile guztiarekin, bi edo hiru ordu inguruko lan-bilerak egiteko.
- Horrez gain, proiektuaren barruko azterlanak eta txostenak egiteko laguntza emango diete. Zehazkiago, Basauriko Udalari aurkezteko dokumentu bi prestatuko dira: «Diagnostikoa: herri atsegina al da Basauri adinekoentzat (herritarren zahartze-prozesuari begira)?», batetik; eta «Basauri adinekoentzako herri atsegina izateko Ekintza Plana», bestetik.
- Gainera, parte hartuko dute proiektua garatu ahala sortzen doazen ekitaldietan (bilerak herriko eragileekin edo Jarraipen Batzordearekin; hitzaldi publikoak; eta abar). Bilera horietako batzuk Deustuko Unibertsitatean egin ahalko dira.
- Proiektua egokiro garatzeko giza baliabideak hornitzeko konpromisoa hartzen du Deustuko Unibertsitateak.

#### Basauriko Udalak:

- Deustuko Unibertsitateari 18.000 euroko ekarpena egingo dio, hark egingo dituen lanen truke (zergak eta tasak kanpo), **2017ko abenduaren 31 baino lehenago**. Horrez gain, jarraian adierazitako baliabide pertsonal eta materialak hornitu beharko ditu:
- Proiekturako beharrezkoak diren baliabide pertsonalak: proiektua aurrera eramateko izendatutako udal teknikariak (nagusiki, gizarte-zerbitzuetakoak). Deustuko Unibertsitateak proiektuari eskainitakoaren besteko denbora eskainiko diote udal teknikariek ere. Proiektua garatu ahala, une zehatzetan (diagnostiko-fasean, batez ere), beste alorretako udal teknikariek ere hartu beharko dute parte, beren lan-eremu espezifiko zereginak aurrera eramateko, betiere, ordu-kopuru mugatuarekin.
- Herriko eragileek, beren aldetik, proiektuaren Talde Eragilea osatuko duten adinekoak errekrutatuko dituzte.

- Udalak hornituko ditu proiekturako beharrezkoak diren baliabide materialak, besteak beste: biltzeko eta lan egiteko tokia; proiektua lantzeko eta haren zabalkundea egiteko paper-gauzak, bereziki, diagnostiko-fasea egiteko beharrezkoa dena; web baliabideak; Talde Eragileak lan egiteko euskarri informatikoa; eta abar.

#### **LAUGARRENA.– JARRAIPEN-BATZORDEA.**

Jarraipen Batzordea eratuko dute Deustuko Unibertsitateak eta Basauriko Udalak, hitzarmenaren exekuzioaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko. Zehazkiago, honako zeregin hauek izango ditu Jarraipen Batzordeak:

- a) Hitzarmen honen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak ebaztea.
- b) Hitzarmen honi erantsita doan memorian jasotako proiektuaren exekuzioa ebaluatzea.
- c) Hitzarmenak finkatutako konpromisoak hobeto gauzatzeko, eta parte-hartzaileen koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea.

Jarraipen Batzordea osatuko dute «Ageing Research» Gerontologiako talde ikertzailearen arduradunak eta Basauriko Udaleko teknikari batek. Hiru hilean behin batuko dira. Bilera horiek birtualak ere izan ahalko dira. Ezohiko bilerak ere egingo dituzte, batzordekideek hala adosten dutenean.

Proiektua amaitu eta gero, hirugarren klausulan aipatutako «Diagnostikoa» eta «Ekintza Plana» dokumentuak izango ditu Jarraipen Batzordeak. Horiek, gero, dagozkion zentroetara bidali beharko dira, bederatzigarren klausulan jakinarazpenetarako emandako helbidera.

#### **BOSGARRENA.- EMAITZEN ZABALKUNDEA EGITEA.**

Printzipio orokor gisa, alderdiek hitzartzen dute ezin dela zabaldu informaziorik, baldin eta hala egiteak kaltetzen baldin badu lankidetzaren ondorioz lortutako ezagutza babesteko aukera —hain zuzen ere, ezagutza hori jabetza industrial eta intelektualeko eskubideen bidez babestekoa—.

Horrela, bada, lankidetzaren gaineko informazioa zabaldu nahi duen alderdiak, beste alderdiari bidali beharko dio argitaratu nahi duen dokumentu-zatia. Berau jaso, eta hogeita hamar (30) eguneko epea izango du alderdi horrek egoki iritzitako eragozpenak eta iruzkinak egiteko.

Zabalkundea edo argitaratzea ekiditeko adierazpenarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Dokumentua aldatzeko eskabidea —bereziki, bertan jasotako informazioa argitaratu edo zabaltzearen ondorioz, kaltetuak suertatu ahal badira lankidetzaren ondoriozko ezagutzak jabetza intelektual edo industrialeko eskubideen bidez ustiatzeko aukerak; edota hirugarrenen interes zilegiak kaltetu ahal badira—.
- Jabetza intelektualeko eskubideen bidez babes daitekeen informazioa zabaltzea edo argitaratzea atzeratzeko errekerimendua.

Isiltasuna emanaz gero, ulertuko da zabalkundea egiteko isilbidezko baimena ematen dela.

Argitaratzean, lanaren egileak aipatu beharko dira beti. Edozelan ere, emaitzen zabalkundea egiten denean, lankidetzaren honen aipamen berezia ere egingo da.

Proiektua garatzen parte hartzen duten herriko eragile guztiei aplikatzen zaie klausula hau.

#### **SEIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA.**

Konfidentziala izango da proiektua gauzatzeari buruzko informazio oro, proiektua baino lehenagokoa ala ostekoa, emandakoa ala jasotakoa. Edozelan ere, informazioa hirugarren bati emango balitzaio, hark ere isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa hartuko du idatziz, hemen adierazitako baldintzetan.

Alderdi eta laguntzaile guztiek, proiektua egitearen ondorioz ezagutuko dituzten izaera pertsonaleko datuen konfidentzialtasuna bermatzeko neurri egokiak hartu behar dituzte, eta baimenik ez duten hirugarrenek datu horietarako sarbidea izatea galarazi beharko dute.

Kontratu hau egokiro aplikatzeko, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak eta berau garatzeko Erregelamenduak (abenduaren 21eko 1720/2007ko ED) babestutako izaera pertsonaleko datuetara sartu ahalko dira alderdi biak, noiz edo noiz. Hartara, datuok egokiro erabili eta kudeatuko dituzte, kontratu hau aurrera eramateko beharrezko jarduketan arabera eta unean-unean emandako jarraibideen arabera.

Era berean, sekretu profesionala gordetzeko obligazioa hartzen dute alderdiek, hain zuzen ere, datu pertsonalei lotuta jaso, kudeatu edota artikulatzeko eskuratzen duten informazioaren gainean. Era berean, honako konpromiso hauek hartzen dituzte: datu horiek hirugarrenei ez jakinaraztekoa; alderdi bien arteko kontratu-harremana amaitzen denean, datuok suntsitu, baliogabetu eta itzultzekoa; eta indarreko legearekin bat datozen segurtasun-neurriak aplikatzekoa.

#### **ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA ETA LUZAPENA.**

Kontratu honek bi urteko indarraldia izango du, berau sinatzen denetik. Ordea, Jarraipen Batzordeak jotzen badu aurreikusitako lanak denbora gehiago behar duela, hiru hilabetez luzatu ahalko da Hitzarmena, horrek zenbatekoari eragin gabe.

Alderdiek dokumentu hau aldatu ahal izango dute edozein unetan, horretarako adostasuna badago. Era berean, bi alderdietako edozeinek salatu ahalko du Hitzarmen hau. Hala egiteko, beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, Hitzarmena amaitutzat emango duen data baino hilabete lehenago. Kasua bata ala bestea izanda ere, hasita eta gauzatze bidean dauden zereginak burutu egin beharko dira.

#### **ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA HUTSALTZEA.**

Hitzarmen hau hutsalduko da:

1. Alderdiek hala adosten badute.

2. Alderdiren batek Hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, eta ez-betetze hori 30 eguneko epean konpontzen ez badu (ez-betetzeari buruzko jakinarazpen frogagarriaren datatik zenbatzen hasita).
3. Hitzarmenaren xedea ezin bada bete.

Hitzarmena hutsaldu arren, indarrean egongo dira konfidentzialtasunari buruzko klausulak, eta emaitzen jabetza eta ustiapenari buruzkoak ere bai.

#### **BEDERATZIGARENA.- JAKINARAZPENETARAKO KONTAKTUAK**

Hitzarmen honi lotutako jakinarazpenetarako, Deustuko Unibertsitatearen aldetik Pedro P. Fernández de Larrinoa (pedro.larrinoa@deusto.es) izango da solaskidea, eta jakinarazpenetarako helbidea, berriz, hauxe: Unibertsitateen etorbidea 24, 48007 Bilbo (Bizkaia).

Basauriko Udalaren aldetik, berriz, Amaia Borde Garatea izango da harremanetarako pertsona. Bere helbidea: Bidearte 10, Basauri (Bizkaia).

#### **HAMARGARRENA.- ARAUTZEA ETA JURISDIKZIOA.**

Alderdi biek adosten dute beren harremanak Hitzarmen honen edukiak arautzen dituela, bakar-bakarrik. Hitzarmen hau aldatu edo zuzentzeko, alderdien idatzizko adostasuna beharko da. Bestalde, Hitzarmenari buruz sor daitekeen edozein desadostasun modu adiskidetsuan konpontzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek.

Desadostasuna modu adiskidetsuan konpontzea ezinezkoa bada, eta justizia-auzitegietara jo aurretik, bitartekaritza-sistema bat eratzea adosten dute alderdiek, gatazka konpontzen saiatzeko: alderdi bakoitzak bitartekari bat izendatuko du, eta, horrez gain, alderdi biek hirugarren bat ere izendatuko dute. Hiru horiek, alderdiak entzun eta gero, adostasuna lortzeko proposamena emango dute.

Bitartekaritzaren bitartez ere ez bada posible irtenbide adiskidetsua lortzea, alderdiek adosten dute legokiekeen beste edozein forori uko egin, eta Bilboko epaitegietako administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aginduetara jarriko direla.

Adierazitako guztiarekiko beren adostasuna agertzeko, alderdiek Hitzarmen honen kopia bi sinatzen dituzte, lehen adierazitako tokian eta datan.

Deustuko Unibertsitatea

Basauriko Udala

Sin.: José María Guibert Ucín S.J.

Sin.: Andoni Busquet Elorrieta